



MARKINA-XEMEIN



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Armarri erdibitua: 1., urrezko hondoan otso baltz ibiltari bi paluan kalatrabako gurutze gorria dabela ganean; 2., urrean arbola berde bat otso baltz igarolari bi dituala enborrean. Urrezko bordura. Inskripzio baltza.

AITAMEN HISTORIKOA

Markinako uriak, eta Xemeingo eta La Puebla de Bolívar-Zenarruzako eleizateek osotzen eben Udalerria; Xemein 1952an batu zan, eta La Puebla de Bolívar-Zenarruza 1969an.

Xemein: Markinako merindadeko eleizatea. Batzar Nagusietan 27. eserlekua eta botua eukazan.

Zenarruza: Busturiko merindadeko eleizatea. Batzar Nagusietan 25. eserlekua eta botua.

Markina: merindadeko herritarrek uria egiteko eskaria egin eben Gipuzkoako lurretako leinuen erasoetatik babestuta egoteko, eta Tello Bizkaiko jaunak, uria egiteko pribilegioa emon eutsen. Pribilegioa 1355ean emon zan Bermeon, eta uriari Villaviciosa de Markina izena ipini jakon; Bilboko forua emon eutsan, eta uriko lurretan zergapeko nekazaririk ez biziteko baldintza ipini jakon. Holanba, uria izan zan, eta Erdi Aroko hainbat leinu ospetsu jaio ziran bertan: ugartetarrak, barroetarrak, torre bidartetarrak, murgatarrak eta gaitan de aialatarrak, besteak beste.

Barinaga: Markinako uriko auzunea. Foruen garaian, 1376tik aurrera, bertako herritarrek Markinako alkatearen agindupean egon ziran, eta urtero-urtero fidel boltsero bat aukeratzen eben erregeari, Bizkaiko jaun legez, egokona kobratzeko. Udala irekia zan, eta auzokide guztiek eben berba egiteko eta botua emoteko eskubidea.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

Escudo partido: 1º, en campo de oro, en palo dos lobos andantes de sable, superados de una cruz de calatrava de gules; 2º, de oro, un árbol de sinople, con dos lobos pasantes de sable al tronco. Bordura de oro. Leyenda de sable.

RESEÑA HISTÓRICA

Municipio formado por la fusión de la villa de Markina y las anteiglesias de Jemein (anexionada en 1952) y La Puebla de Bolívar - Zenarruza (en 1969)

Xemein: era anteiglesia de la merindad de Markina. Ocupaba el asiento 27 de las Juntas Generales.

Cenarruza: anteiglesia de la merindad de Busturia que ocupaba el asiento y voto nº 25 de las Juntas Generales.

Markina: fue fundada por privilegio de Don Tello, señor de Bizkaia, a petición de los vecinos de la merindad, para defenderse de los ataques de los linajes de las tierras vecinas guipuzcoanas. Nace así por privilegio fechado en Bermeo en 1355 con el nombre de Villaviciosa de Markina, otorgándole el fuero de Bilbao, a condición de que no morasen en ella labradores censuarios. Fue, por tanto, villa señorial, cuna de

numerosos y muy importantes linajes medievales, como los de Ugarte, Barroeta, Torre Bidarte, Murga, Gaitan de Aiala.

Barinaga: barrio perteneciente a la villa de Markina. Bajo el régimen foral sus vecinos dependían del alcalde de Markina, desde 1376, y elegían todos los años un fiel bolsero que cobraba la cuantía destinada al rey, como señor de Bizkaia. El Ayuntamiento era abierto y en él tenían voz y voto todos los vecinos.

